

GIDA ESPRESA



Trenbidea gurutzatzea

Trenbide-inguruneetako segurtasunari
buruzko HELDUENTZAKO gida



AGENCIA ESTATAL
DE SEGURIDAD FERROVIARIA



AÑO EUROPEO
DEL FERROCARRIL 2021

Espainiako trenbide- sareari buruzko datu interesgarriak



Trenbide-sarearen luzera: 15.301 km



Tren-geltokien kop.: 1.498



Urtean zirkulatzen duten trenen kop.: 2.206.905



Bidaiariak: 487 milioi



Trenbide-pasaguneak: 3.144

Iturria: Trenbidearen Beharokia. 2017ko kostena.

Trenei buruzko datu interesgarriak

Abiadura handiko tren batzuek 322 tona inguru pisatzen dute; hau da, 260 automobilek adina.

160 km/h-ko abiaduran doan tren batek 1.000 metro ere behar ditu erabat gelditzeko; hau da, 10 futbol-zelai adinako distantzia.

Tren batzuek 8.800 kW-eko potentzia dute; hau da, 120 automobilek adinakoa.

Baimendu gabeko trenbide- inguruneak eta bandalismoa

2010 eta 2017 artean, **Espanian, 114 pertsona hil ziren** trenbide-inguruneetan **baimendu gabeko lekuetan gertatutako istripuetan.**

Hona hemen arau-hauste ohikoenak:

- ▶ Trenbidea gurutzatzeko dauden pasabideak daudenean, haiek ez erabiltzea edo behar ez bezala erabiltzea.
- ▶ Trenbidean ustekabeen sartzea, edo haiek arauz kontra edo arduragabekeriaz zeharkatzea.
- ▶ Seinaleak ez errespetatzea.

Gainera, **legeak zigortu egiten du baimendu gabeko trenbide-inguruneetan sartzea. Jendeak ezin du sartu trenbidean; hortaz, hura baimendu gabeko toki batetik gurutzatzea oso arriskutsua eta legez kanpokoa da, baita zigorgarria ere.**



**ISUNAK
(gehienez)
7.500 €**



AD/fek lagartako irudia

Nondik gurutzatuko du?

- ▶ Tren-geltokietan eta haien inguruko tokietan, **gaineko eta azpiko pasabideak eta trenbide-pasaguneak** daude trenbidea seguru zeharkatzeko.
- ▶ Beste pasabiderik ez badago eta trenbidearen gainean **nasen arteko gurutzagune bat** badago, **gelditu, begiratu bi aldeetara, entzun arretaz eta gurutzatu seguru**a denean.
- ▶ Trenbide-pasaguneetan, egin kasu seinale fisikoei, argi-seinaleei eta seinale akustikoei.

Gelditu, errespetatu seinaleak eta zeharkatu trenbidea horretarako baimena ematen denean.



Trenbide-inguruneetan arriskuak saihesteko gakoak

- ▶ Paseatzen zoazenean edo kirola egitean, **gorde trenbidearekiko segurtasun-distantzia**. Haien abiadura eta pisua direla eta, trenek sortzen dituzten **aire-zurrunbiloak** hain dira indartsuak, ezen trenaren azpira eraman eta xurga baitzaitzakete.
- ▶ **Nasan, koka zaitez** segurtasun-eremuan; normalean, lerro hori batek mugatzen du.

Ez hurbildu inoiz tren erabat geldituta egon arte.



- ▶ Tren-geltokietan eta haien inguruko tokietan, **ibili leku baimenduetan**.
- ▶ Tren-geltokietan eta beste trenbide-ingurune batzuetan, **errespetatu seinaleak eta jarri arreta berezia pasabide baimenduetan**.
- ▶ Tren-geltokietan, **adi bozgorailuetako mezuei eta ikusizkoei, baita langileen argibideei ere**.

Trenbide- inguruneetan seguru egoteko gakoak

Tren-geltokietan
eta trenbide-
inguruneetan
arriskuak
daude.

- ▶ Tren-geltokietan, egoki jokatu eta ez jarri arriskuan zeure burua, ezta besteak ere.
- ▶ Tren-geltokietan eta trenbide-inguruneetan arriskuak daude. **Alkoholak eta medikamentu batzuek arriskuaren pertzepzioa aldatzen digute, eta erantzuteko gaitasuna murrizten.**




- ▶ Nasaren ertzean edo trenbidetik gertu **mugikorreaz hitz egiteak, argazkiak ateratzeak, entzungailuak erabiltzeak, sare sozialei begira egoteak eta abarrek oso ondorio larriak izan ditzakete.**
- ▶ Tren-geltokietan eta haien inguruko tokietan, ez egin ez ikusi arriskuaz ohartarazteko seinaleei.

- ▶ Nasen arteko gurutzaguneak zeharkatzean, ibili erdialdetik.
- ▶ Arriskutsua da trenbidea gurutzatzea. **Erne egon behar duzu beti; ez galdu arreta.**

Denon artean,
arrisku-egoerak
saihets
ditzakegu.



GELDITU, BEGIRATU, ENTZUN, BIZI!



Trenbidea gurutzatzea

Lantalde teknikoa:



Secretaría Técnica:
FUNDACIÓN DE LOS
FERROCARRILES
ESPAÑOLES



AGENCIA ESTATAL
DE SEGURIDAD FERROVIARIA